



IKUSPEGIAK

Arteen eta Kultura-industrien
Estatistiken irakurketa analitikoa


2021



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



IKUSPEGIAK

Arteen eta Kultura-industrien
Estatistiken irakurketa analitikoa

2021



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2024

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzaile:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Koordinazio teknikoa:
ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Landa-lana:
SIADECO, S.COOP

Diseinua eta maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz

Itzulpena: Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO)

ISBN: 978-84-457-3748-4

Sarrera	5
I. EAE-KO ARTEEN ETA KULTURA-INDUSTRIEN ZIFRAK	6
1. Sektoreka	7
2. Titulartasuna	15
3. Lurraldea	17
II. ZEHARKAKO IRAKURKETAK	20
1. Asimetriak	21
2. Zuzeneko kultura vs erreproduzitu daitekeen kultura	35
3. Kultura euskaraz	38
4. Ekimen publikoarekiko mendekotasuna eta pisua	51
5. Berritzea eta nazioartekotzea	54
6. Generoa	59

Kulturaren Euskal Behatokiak Begiradak txostena aurkezten du, Arteen eta Kultura-industrien 2021eko datuak bilduta. Kultura-sektoreen egoeraren gaineko irakurketa osoa egiteko asmoz sortua, interes handiko bi elementu plazaratzen ditu: kultura-sektore osoaren gaineko ikuspegi holistikoa, eta kultura-politikaren gai nagusiei buruzko zeharkako irakurketak.

Edizio honetan, pandemian jasandako inguruabarrak gehitu behar dira, 2021ean oraindik irauten baitzuten edukierari, ordutegiei eta pertsonen mugikortasunari buruzko murrizketek. Gogora ekarri behar da 2022ko otsailera arte ez zela dekretatu Euskadiko osasun-larrialdiko egoeraren amaiera. Salbuespenezko egoera horrek eragin handia izan zuen kultura-jarduera presentzialean; izan ere, aldakortasuna eransten die datuei, azken edizioetan erregistratutako joera-ildoak hausten ditu eta alde nabarmenak sortzen ditu sektoreen artean. Informazio hau, hortaz, une korapilatsu baten erretratua da, eta hala tratatu behar da.

Edizio honetako beste berritasun bat berdintasun-politikei buruzko atala da, emakumeek enpleguan duten presentziari buruzko azterketa osatzen duena.

Txostenak bi atal nagusi ditu:

Lehenik eta behin, arteen eta kultura-industrien adierazle orokorrak aurkezten dira, honako arlo hauei buruzko zifra nagusiak bilduta: sektoreen araberako dimentsioa, parte hartu duten agenteen titulartasuna eta lurralde-banaketa. Hartara, aukera ematen da kultura-sektore osoaren erretratua egiteko.

Bigarrenik, datuei buruzko zeharkako begiradak ematen dira: sektoreen asimetriak, erreproduzitu daitekeen kulturaren eta zuzeneko kulturaren arteko bereizketa, agenteen jarduera ekonomikoaren bilakaera, euskarak kultura-jardueran duen pisua, agente pribatuek arlo publikoarekin duten mendekotasun-maila, berritze- eta nazioartekotze-maila, eta genero-ikuspegia, emakumeen presentziari aplikatua nahiz berdintasun-politiken ezarpenari aplikatua.




I.

ΕΑΕ-ΚΟ ΑΡΤΕΕΝ ΕΤΑ ΚΥΛΤΥΡΑ-ΙΝΔΥΣΤΡΙΑΝ ΖΙΦΡΑΚ

Arteen eta kultura-industrien Estatistikaren zortzigarren edizioak 2021. urteko datuak jasotzen ditu, eta EAeko 698 agenteren informazioa biltzen; agente horiek guztiek erroldan izateko baldintzak bete behar dituzte. Ekoizpenean, erakusketan eta merkataritzan diharduten agenteak dira, sektore hauetakoak:

- **Arte eszenikoen** sektorean, 136 programatzaile eta 96 ekoizle daude. Programatzaileen artean, antzokiak (97) eta jaialdiak (39) hartzen dira kontuan. Ekoizpenean, antzerkiko (79) eta dantzako (17) konpainia profesionalak dihardute.
- **Liburuaren** sektoreak 125 agente biltzen ditu; horietatik 88 liburu-dendak dira eta 37 argitaletxeak.
- **Musikaren** sektorean 143 agente sartzen dira: 117 agente zuzeneko musikan aritzen dira, eta 26 diskoaren industrian. Musika-programatzaileen artean, 79 agente publiko daude (orkestrak ere barne) bai eta 8 musika-banda, 21 sustatzaile pribatu eta 9 kontzertu-areto ere. Diskoaren industriak 9 diskoetxe eta 17 disko-saltoki hartzen ditu barnean.
- **Ikusizko arteek** 44 agente hartzen dituzte barnean, erakustaretoen (30) eta arte-galerien (14) artean banatuta. Ikusizko arteen ekoizleak erakustaretoen barruan sartzen dira.
- **Ikus-entzunezkoen sektoreak** 154 agente hartzen ditu barnean: 101 ekoizle eta 53 zinema-areto.

1. irudia. **Agenteak, sektorearen arabera.** Absolutuak. 2009-2021




2019. urtearekin alderatuta, agente-kopurua ez da aldatu, oro har (1. irudia).

Hamarkada bat atzera begiratuz gero, ikusten da EAEko kultura-eskaintza profesionalari eusten dion sektore-ehuna 2009koa baino zertxobait beherago dagoela (2. irudia). Jarduera-sektoreen araberako irakurketa xehatuak dinamika dibergenteak erakusten ditu: nabarmen handitu da ikus-entzunezkoen sektoreko agente-kopurua, ekoizpenak bultzatuta; liburuak krisiaren oldarrari eusten dio, 2015 eta 2019 artean beherakada nabarmena izan ondoren.

Ahulago dauden sektoreen artean zuzeneko kulturari lotutakoak daude. Arte eszenikoek behera egin dute, 2013 eta 2019 artean hazkunde jarraitua izan ondoren; eta musikak esparruak galdu ditu, batik bat zuzeneko musikako areto pribatuen egoeraren ondorioz. Azkenik, nabarmentzekoa da ikusizko arteek daturik okerrean erregistratzen dutela serie historikoaren hasieratik.

2. irudia. **Agente sarearen bilakaera sektorearen arabera.**
2009-2021. Oinarrizko adierazlea 100=2009



Oharra: ez dira sartu zinema-aretoen datuak, 2017ko estatistikan sartu ziren eta.

2019arekin alderatuta, ekoizpenari eta merkataritzari lotutako eremu industrialenen ehuna handitu da, hala nola liburuena eta diskoarena, bai eta ikus-entzunezko produkzioarena ere (% 34,7). Nolanahi ere, azken kasu horretan izan ezik, hazkunde horiek anekdotikoak dira, termino absolutuetan.

Alde negatiboan, kontzertu-aretoak dira pandemiaren eragina gehien nozitu duen eremua, agente-galerari dagokionez (% 43,8), bai eta erakusketa-aretoak (% 30,2) eta arte-galeriak (% 33,3) ere.

3. irudia. **Agenteak, sektorearen eta agente-tipologiaren arabera.**

Absolutuak eta ehunekoak. 2019-2021

Sektorea	Agentearen tipologia	2019		2021		2019-2021 aldakuntza
		Maizt.	%	Maizt.	%	%
Arte eszenikoak	Ekoizleak	99	14,1	96	13,8	▼ 3,0
	Programatzaileak	140	20,0	136	19,5	▼ 2,9
Liburuak	Argitaletxeak	37	5,3	37	5,3	-
	Liburu-dendak	82	11,7	88	12,6	▲ 7,3
Musika	Programatzaile publikoak	85	12,1	79	11,3	▼ 7,1
	Sustatzaile pribatuak	19	2,7	21	3,0	▲ 10,5
	Kontzertu-aretoak	16	2,3	9	1,3	▼ 43,8
	Bandak	9	1,3	8	1,1	▼ 11,1
	Diskoetxeak	5	0,7	9	1,3	▲ 80,0
	Disko-saltokiak	16	2,3	17	2,4	▼ 6,3
Ikusizko arteak	Erakusketa-guneak	43	6,1	30	4,3	▼ 30,2
	Arte-galeriak	21	3,0	14	2,0	▼ 33,3
Ikus-entzunezkoak	Ekoizleak	75	10,7	101	14,5	▲ 34,7
	Zinema-aretoak	54	7,7	53	7,6	▼ 1,9
Guztira		701	100,0	698	100,0	▼ 0,4

Oharra: Orkestrak musika-programatzaile publikoen datuetan sartu dira, eta ikusizko arteen ekoizleak, berriz, ikusizko arteen erakusketa-guneen datuetan, datuen konfidentzialtasunarekin lotutako arrazoiak tarteko.

2021eko gastuen eta diru-sarreraren arteko balantzea positiboa da: 14,8 milioi euroko emaitza izan du, hau da, guztizko diru-sarreraren % 3,5. Batez ere, artearen merkatuak bultzatu du emaitza hori. Honako sektore hauek ere oso balantze positiboak izan dituzte: liburu-dendak (2,7 milioi euro), ikus-entzunezkoen ekoizpenak (% 2,2 milioi euro) eta musika-sustatzaile pribatuak (1,3 milioi euro), hurrenkera horretan. Azkenik, honako hauek ere emaitza positiboak izan dituzte, eskala txikiagoan, bai ekoizpenean, bai merkaturatzean: arte eszenikoen ekoizpenak, kontzertu-aretoak, zinema-aretoak, erakusketa guneak eta diskoak.

4. irudia

Diru-sarrerak, gastuak eta balantzea, sektorearen eta agente-tipologiaren arabera. Euroak milakoetan eta ehunekoak. 2021


Sektorea	Agentearen tipologia	Diru-sarrerak	Gastuak	Balantzea	Guztizko diru-sarreren ehunekoa
		Milaka eurotan	Milaka eurotan	Milaka eurotan	%
Arte eszenikoak	Ekoizleak	18.059,0	17.349,3	709,7	3,9
	Programatzaileak	37.310,9	38.020,6	-709,7	-1,9
Liburuak	Argitaletxeak	27.981,3	28.426,9	-445,6	-1,6
	Liburu-dendak	42.913,3	40.169,9	2.743,4	6,4
Musika	Programatzaile publikoak	32.185,5	32.750,6	-565,1	-1,8
	Sustatzaile pribatuak	21.678,0	20.341,1	1.336,9	6,2
	Kontzertu-aretoak	2.247,1	1.765,0	482,1	21,5
	Bandak	9.312,7	9.312,7	0,0	0,0
	Diskoetxeak	2.656,0	2.450,3	205,7	7,7
	Disko-saltokiak	1.974,3	1.822,0	152,3	7,7
Ikusizko arteak	Erakusketa-guneak	9.275,2	9.040,4	234,8	2,5
	Arte-galeriak	9.802,5	1.719,1	8.083,4	82,5
Ikus-entzunezkoak	Ekoizleak	191.948,2	189.711,1	2.237,1	1,2
	Zinema-aretoak	16.555,9	16.180,8	375,1	2,3
Guztira		423.900,0	409.059,6	14.840,4	3,5

Oharra: Orkestrak musika-programatzaile publikoen datuetan sartu dira, eta ikusizko arteen ekoizleak, berriz, ikusizko arteen erakusketa-guneen datuetan, datuen konfidentziasunarekin lotutako arrazoiak tarteko.

5. irudian ageri denez, aurreko edizioarekin (2019) alderatuta, ikusten da, oro har, agente gutxi bazuk galdu direla (0,4 %) eta diru-sarreraren bolumenak behera egin duela (% 5,7), 25,5 milioi euro galduta.

Liburuen sektoreak eta ikus-entzunezkoenak, berriz, ehuna eta diru-sarrerak handitu dituzte, baina ez proportzio berean. Musikan eta arte eszenikoetan, agenteen kopuruak eta, proportzio handiagoan, diru-sarrerak behera egin dute (% 28,6 eta % 10,3, hurrenez hurren). Dinamika hori azaltzeko, kontuan hartu behar dugu pandemiaren ondoriozko murrizketek berekin ekarri zutela zuzeneko kultura-jarduera jaistea. Ikusizko arteek dute desberdintasun handiena portaeran: agente-kopuruaren beherakada eta diru-sarreraren igoera ia proportzionalak dira.

5. irudia. **Agenteen eta diru-sarreraren kopuruaren aldakuntza, sektorearen arabera.** Ehunekoak. 2019-2021



Enpleguari dagokionez, 2021ean, guztira, 3.798 langile zeuden, 2019an baino % 13,8 gehiago (urteko 459,3 enplegu). Nabarmentzekoa da ikus-entzunezkoen ekoizpenak enplegu osoan izan duen trakzio-eragina; izan ere, 441,3 enplegu gehiago ditu, eta, hala, arteetako eta kultura-industrietako enplegu guztien % 38,7ri eusten dio. Honako sektore hauek, berriz, joera negatiboa izan dute enplegua mantentzeko dagokionez: zinema-aretoak (37 enplegu gutxiago), musika-bandak, kontzertu-aretoak eta ikusizko arteak (erakusketa-guneak eta arte-galeriak).

6. irudia. **Agenteen langileak (urteko lanaldi osoko langile baliokideak), sektorearen eta agente-tipologiaren arabera.**

Absolutuak eta ehunekoak. 2019-2021

Sektorea	Agentearen tipologia	2019		2021		2019-2021 aldakuntza
		Maizt	%	Maizt	%	%
Arte eszenikoak	Ekoizleak	323,4	9,7	328,6	9,7	▲ 1,6
	Programatzaileak	328,7	9,8	347,8	9,8	▲ 5,8
Liburuak	Argitaletxeak	178,7	5,4	179,7	5,4	▲ 0,6
	Liburu-dendak	231,3	6,9	250,1	6,9	▲ 8,1
Musika	Prog. publikoak	289,9	8,7	299,4	8,7	▲ 3,3
	Sustatzaile pribatuak	113,2	3,4	152,4	3,4	▲ 34,7
	Kontzertu-aretoak	52,3	1,6	35,1	1,6	▼ 33,0
	Bandak	191,4	5,7	166,5	5,7	▼ 13,0
	Diskoetxeak	4,7	0,1	23,0	0,1	▲ 389,4
	Disko-saltokiak	16,9	0,5	19,2	0,5	▲ 13,8
Ikusizko arteak	Erakusketa-guneak	67	2,0	55,8	2,0	▼ 16,7
	Arte-galeriak	32,4	1,0	27,3	1,0	▼ 15,9
Ikus-entzunezkoak	Ekoizleak	1.290,8	38,7	1.732,1	38,7	▲ 34,2
	Zinema-aretoak	218,1	6,5	181,1	6,5	▼ 17,0
Guztira		3.338,8	100,0	3.798,1	100,0	▲ 13,8

Oharra: Orkestrak musika-programatzaile publikoen datuetan sartu dira, eta ikusizko arteen ekoizleak, berriz, ikusizko arteen erakusketa-guneen datuetan, datuen konfidentziasunarekin lotutako arrazoiak tarteko.

Lanbide-funtzioen araberako banaketak erakusten du funtzio teknikoei lotutako enpleguak nagusitzen direla (% 55,5). Zuzendaritza-postuak lanpostu guztien % 13,4 dira; kudeaketa- eta administrazio-postuak % 12,0, eta mantentze-lanekin, garbiketarekin eta segurtasunarekin lotutakoak, berriz, % 19,1.

7. irudia. **Agenteen langileak (urteko lanaldi osoko langile baliokideak), sektoreen, agente-tipologiaren eta kategoria profesionalen arabera.** Absolutuak eta ehunekoak. 2021


Sektorea	Agentearen tipologia	Zuzendaritza		Teknikoak		Kudeaketa / Administrazioa		Beste batzuk		Guztira	
		Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%
Arte eszenikoak	Ekoizleak	104,7	31,9	73,2	22,3	71,4	21,7	79,3	24,1	329	100,0
	Programatzaileak	39,2	11,3	121,9	35,0	105,6	30,4	81,1	23,3	348	100,0
Liburuak	Argitaletxeak	30,2	16,8	89,6	49,9	54,2	30,2	5,7	3,2	180	100,0
	Liburu-dendak	61,7	24,7	95,1	38,0	44,2	17,7	49,1	19,6	250	100,0
Musika	Prog. publikoak	19,5	6,5	41,7	13,9	41,2	13,7	197,0	65,8	299	100,0
	Sust. pribatuak	33,5	22,0	60,7	39,8	16,7	11,0	41,5	27,2	152	100,0
	Kontzertu-aretoak	2,3	6,4	10,2	29,1	2,7	7,6	20,0	56,9	35	100,0
	Bandak	7,8	4,7	157,7	94,7	1,0	0,6	0,0	0,0	167	100,0
	Diskoetxeak	7,3	31,7	9,0	39,1	6,7	29,1	0,0	0,0	23	100,0
	Disko-saltokiak	7,6	39,4	6,1	31,6	3,2	16,6	2,4	12,4	19	100,0
Ikusizko arteak	Erakusketa-guneak	9,0	16,1	27,9	50,0	10,0	17,9	9,0	16,1	56	100,0
	Arte-galeriak	17,4	64,0	4,3	15,8	2,9	10,7	2,6	9,6	27	100,0
Ikus- -entzunezkoak	Ekoizleak.	154,4	8,9	1.368,7	79,0	55,3	3,2	153,5	8,9	1.732	100,0
	Zinema-aretoak	15,9	8,8	40,9	22,6	39,5	21,8	84,6	46,8	181	100,0
Guztira		510,6	13,4	2.107,0	55,5	454,5	12,0	725,8	19,1	3.798	100,0

Oharra: Orkestrak musika-programatzaile publikoen datuetan sartu dira, eta ikusizko arteen ekoizleak, berriz, ikusizko arteen erakusketa-guneen datuetan, datuen konfidentziasunarekin lotutako arrazoiak tarteko.

Titulartasun publikoko agenteak dira partaidetza nagusia administrazio publikoena duten erakundeak, edozein dutela ere izaera juridikoa; titulartasun pribatua, berriz, enpresa-jardueran eta irabazteko asmoz diharduten agenteei dagokie; eta, azkenik, elkarteak eta fundazioak irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak dira.


Aurreko edizioetan bezala, titulartasun pribatuko agenteak dira nagusi (% 55,3 2021 ean). Agenteek titulartasunaren arabera duten pisu erlatiboa zertxobait aldatu da azterlanaren aurreko edizioarekin alderatuta: agente pribatuen kopurua pixka bat handitu da, agente publikoen pisuaren eta, neurri txikiagoan, elkarte eta fundazioen pisuaren kaltetan.

8. irudia. **Agenteak titulartasunaren arabera.** Ehunekoak. 2009-2021




Ikuspegi ekonomikotik, berriz, agente pribatuaren kopuruaren nagusitasuna desagertzen da; izan ere, titulartasun publikoari dagozkio diru-sarreraren erdiak baino gehiago (% 55,5). Enpleguari dagokionez, orekatua da arlo publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa. Orain arte ohikoa izan den bezala, hirugarren sektoreak ekonomian eta enpleguan indar txikiagoa du legokioketena baino.

9. irudia. **Diru-sarrerak, gastuak, guztizko langileak eta agenteak, titulartasunaren arabera.** Ehunekoak. 2021



Lurralde historikoen arabera begiradak nolabaiteko oreka erakusten du, kultura-ehunaren lurralde-banaketari dagokionez (agenteen % 45,3 Bizkaian daude; % 42 Gipuzkoan; % 12 Araban). Nabarmentzekoa da Bizkaian kokatutako agenteen indarra termino ekonomikoetan (diru-sarrera guztien % 73) eta enpleguan (enplegu guztien % 64,5).

10. irudia. **Agenteen, diru-sarreraren, gastuen eta langileen ehuneko banaketa lurralde historikoen arabera.** Ehunekoak. 2021



Hiru lurralde historikoetako kultura-dentsitatea biztanle-kopuruaren arabera aztertuz gero, Gipuzkoa gailentzen da (41,5), Bizkaia (27,6) eta Araba (25,4) baino askoz ere gorago. Bereziki nabarmendu behar da Gipuzkoako programazio- eta erakusketa-sarea (21,7), sei puntu handiagoa EAEko batezbestekoa (15,3) baino.


11. irudia. **Programatzaile eta erakusketa-guneen eta saltoki eta ekoizleen banaketa eta ratioa 100.000 biztanleko, lurralde historikoaren arabera.**

Absolutuak eta ratioa 100.000 biztanleko. 2021

Agentearen tipologia	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	Ratioa	Maizt.	Ratioa	Maizt.	Ratioa	Maizt.
Programatzaile eta erakusketa-guneak	11,8	39	21,7	156	12,3	141
Saltokiak	3,6	12	6,3	45	5,4	62
Ekoizleak	10,0	33	13,5	97	9,9	113
Guztira	25,4	84	41,5	298	27,6	316


Agente programatzaileen eta erakusketa-guneen banaketa xehatuak erakusten du Gipuzkoa gailentzen dela: lurralde horretan biltzen dira musika-programatzaileen eta ikusizko arteen aretoen erdiak inguru (% 53,2 eta % 53,3 hurrenez hurren). Bizkaian daude arte eszenikoaren programatzaile gehienak (% 43,4). Ehuneko apalagoetan bada ere, Araban ere nabarmentzen da multzo hori (% 14,0), lurraldearen ezaugarriak kontuan hartuta.

12. irudia. **Programatzaile eta erakusketa-guneak, lurralde historikoaren arabera.**
Ehunekoak. 2021




Merkataritzari dagokionez, aldeak daude lurralde batetik bestera. Liburu-denden erdiak baino gehiago Bizkaian daude, eta arte-galerien erdiak baino gehiago Gipuzkoan. Disko-salmentan aritzen den merkataritza-sarea banatuago dago hiru lurraldeen artean. Azkenik, aipatu behar da Gipuzkoa nabarmentzen dela kontzertu-aretoetan.

13. irudia. **Saltokiak eta kontzertu-aretoak, lurralde historikoaren arabera.**
Ehunekoak. 2021



Agente ekoizleen kokapena aldatu egiten da sektorearen arabera: Bizkaian, argitalpen-ekoizpenaren % 60 inguru dago; Gipuzkoan, ikus-entzunezko ekoiztetxeen % 44,6 dago, eta, Araban, ehuneko handienak arte eszenikoen konpainiei eta argitaletxeei dagozkie (% 16,7 eta % 14,9 hurrenez hurren).

14. irudia. **Ekoizleak lurralde historikoaren arabera.** Ehunekoak. 2021





II.

ZEHARKAKO IRAKURKETAK


Atal honek arreta jartzen du sektore bakoitzean egon daitezkeen barne-desoreketan, agenteen diru-sarrerak erabiliz asimetrien adierazgarri. Horretarako, diru-sarrera altuenak dituen taldea aztertu, eta sektorearen osotasunean zer eragin duen kalkulatu da. Begirada horren asmoa da sektoreen berezitasunak detektatzea; izan ere, berezitasun horiek lausotuta geratzen dira, ikuspegi globala izateko beharrezkoak diren datu agregatuak tratatzen direnean. Helburu horrekin, 80-20 araua aplikatzen da, hau da: aztertzen da sektore bakoitzean nolako eragina duen diru-sarrera handienak dituzten eragileen % 20k.

Lehenengo ondorioa da araua ia sektore guztietan betetzen dela: lau sektoretan asimetria oso nabarmena da; izan ere, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20k diru-sarrera guztien 10 eurotik 8 eta 9 euro artean biltzen dituzte: arte-galeriak (% 90), sustatzaile pribatuak (% 88,4), musika-programatzaile publikoak (% 85,7) eta ikusizko arteak erakusteko aretoak (% 84,9). Aipagarria da lehen bi eremuak enpresa pribatuei dagozkiela.

Gainerako sektoreetan, asimetria % 60-70 ingurukoa da, disko-saltokietan izan ezik, non diru-sarreraren banaketa proportzionala baita agenteen pisuarekiko (% 21,5).

Hala ere, diru-sarrerak agente-kopuru txiki batean kontzentratzeak ez du esan nahi jarduerak logika horri berari jarraitzen dionik. Hala, agerian geratzen dira agente horien jardueren berezitasunak, jarduerak nolako anbizioa duten ekoizpenari edo erakusketei dagokienez, bai eta agenteen negozio-eredu desberdinak ere.

15. irudia. **Agenteen tipologiaren rankinga, diru-sarrera gehien dituzten agenteen % 20ren diru-sarreren kontzentrazioaren eta jarduera-bolumenaren* arabera.** Ehunekoak. 2021



* Disko-saltokiak eta liburu-dendak = salmentak; argitaletxeak = nobedade gisa editatutako tituluak; arte eszenikoak = emanaldiak; musika = kontzertu programatuak; ikus-entzunezkoen ekoiztetxeak = ekoizpenak; zinema-aretoak = film programatuak; ikusizko arteak = erakusketak.

(1) EITB gabe

Azalpen-oharra: ez da kontzertu-aretoen daturik ematen, datuak babesteko arrazioak tarteko.


Arte eszenikoen ekoizleak

Diru-sarrera handienak dituzten arte eszenikoen konpainien % 20k (19 agente) sektoreko diru-sarrerera guztien % 61,6 sortzen dute (18 milioi euro). Aipatzekoa da haien garrantzia murriztu egin dela azterlanaren azken bi edizioetan.

Joera hori enpleguan islatzen da: talde nagusi horrek enplegu osoan duen pisua % 41,1 da, aurreko edizioan lortutakoa baino zertxobait apalagoa. Ekoizpenari dagokionez, dinamikak eusten dio, garrantzi pixka bat galduta 2019arekin alderatuta.

Emanaldi-kopuruan handitu da bereziki konpainia talde horren pisua (sektore osoaren % 34,3 izatetik, 2021 ean % 38,6 izatera).

16. irudia. **Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten arte eszenikoen ekoizleen % 20ren pisu erlatiboa. 2019-2021**



Arte eszenikoen programatzaileak

Diru-sarrera bolumen handiena biltzen duten antzokien ezaugarriek azaltzen dituzte datuak: ekipamendu handiak dira, eta hiriburuetan eta udalerrri nagusietan daude.

Arte eszenikoen areto handiek antzoki guztien diru-sarreraren % 72,3 biltzen dute, eta enpleguaren % 58,1 eta ikusleen % 57,7. Hiru adierazle horietan ez dago ia aldaketarik 2019. urtearekin alderatuta. Programazioan, ordea, badago aldea: 8 eta 10 puntu arteko beherakada dago, eta hala espero izatekoa zen, pandemiaren ondorioz.

17. irudia. **Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten arte eszenikoak programatzen dituzten aretoen % 20ren pisu erlatiboa. 2019-2021**




Arte eszenikoetako jaialdien asimetria nabarmena da: diru-sarrera kopuru handiena metatzen duten 8 jaialdiek guztizko diru-sarreraren % 72,9 biltzen dute (9 milioiko diru-sarrerak, guztira).

Enpleguan, areagotu egin da 2017an hasitako beheranzko joera: jaialdi-multzo txiki horren pisua langileen % 50,9ra murriztu da.

Jarduerari dagokionez, programatzen dituzten ikuskizunen pisua guztizkoaren % 40,3 da, eta 2021 ean programatutako emanaldien % 43,9 biltzen dute.

18. irudia. **Sektoreko adierazleetan diru-sarrera gehien dituzten arte eszenikoen jaialdien % 20ren pisu erlatiboa. 2019-2021**




Liburu-dendak eta argitaletxeak

Liburu-dendek azken urteotako egoeraren oso antzekoa dute adierazle guztietan, goranzko joera txiki batekin. Sektoreko diru-sarrera handienak dituzten establezimenduek diru-sarreraren guztizkoaren % 59,3 biltzen dute, eta liburu-salmentatik soilik eskuratzen dituzten diru-sarrerak % 59,4 dira. Saltoki asko kateen edo liburu-denda handien parte badira ere, liburu-denda independenteak ere badira.

Sektoreko enpleguan duten pisua % 51,2 da. Hamar liburutik zazpi saltzen dira establezimendu-multzo horretan.

19. irudia. Sektoreko adierazleetan diru-sarrera gehien dituzten liburu-denden % 20ren pisu erlatiboa. 2019-2021



Diru-sarrera handienak dituzten argitaletxeen % 20k sektoreko diru-sarrera guztien nahiz liburu-salmenta bidezko diru-sarrera guztien % 68 biltzen dute. Enplegua sei puntu igo da aurreko edizioarekin alderatuta.

Ekoizpenak goranzko joera erakusten du, zertxobait handiagoa nobedadeetan (% 46,7), eta nabarmenagoa tiradetan (% 60,6).

20. irudia. **Sektoreko adierazleetan diru-sarrerak handienak dituzten argitaletxeen % 20ren pisu erlatiboa.** 2019-2021




Musika-programatzaileak

Musika-programatzaile publikoen asimetria handia da, eta handitu egin da 2019arekin alderatuta: diru-sarrera handienak dituzten musika-programatzaile publikoen % 20k (orkestrak barne) diru-sarreraren guztizkoaren % 85,7 biltzen dute, eta enpleguaren % 81,2.

Programatutako kontzertuen pisua nabarmen igo da edizio honetan, profil honen guztizkoaren % 58,5eraino. Entzuleak nabarmen jaitsi dira, pandemiaren ondorioz (% 43,4).


21. irudia. **Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten musika-programatzaile publikoen % 20ren pisu erlatiboa.** 2019-2021



Oso nabarmena da sustatzaile pribatuen arteko asimetria. Diru-sarreraren bolumen handiena duten agente pribatuek profil horretako diru-sarreraren guztizkoaren % 88,4 biltzen dute. Enpleguan, ordea, askoz ere pisu txikiagoa dute (% 43,3).

Alde nabarmenena programatutako kontzertuetan ikusten da: 20 puntuko igoera, 2019etik. Ikusle-kopuruak ere gora egin du, baina neurri txikiagoan.

22. irudia. **Musika-sustatzaile pribatuen % 20ren pisu erlatiboa sektoreko adierazleetan. 2019-2021**




Edizio honetan ez da kontzertu-aretoei buruzko daturik ematen, 80-20ko arau horri jarraikiz, datuak babesteko arrazoiak direla medio, azterlanean parte hartu duten agenteen kopurua nabarmen jaitsi baita.

Disko-saltokiak

Sektore osoan, disko-saltoki nagusiek % 65,9ko pisua dute, bai guztizko diru-sarreretan, bai diskoen salmentetatik lortutakoetan. Saltzen duten diskoen proportzioa, ordea, datu horren azpitik dago (% 59,8). Enpleguan, % 46,5eko pisu erlatiboa dute.

23. irudia. **Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten disko-saltokietako agenteen % 20ren pisu erlatiboa.** 2019-2021




Ikusizko arteen agenteak

Sektorean pisu handiena duten arte-galeriek guztizko diru-sarreraren eta salmenta bidezko diru-sarreraren % 90 biltzen dute.


Aurreko edizioetan ikusi bezala, berezko ezaugarriak direla-eta sektoreak enpleguan (guztizkoaren % 42,8) eta egindako erakusketetan (% 15) duen pisua hurbilago dago agente-kopuruari dagokionez duen mailatik.

24. irudia. Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten arte-galerien % 20ren pisu erlatiboa. 2019-2021



Erakusketa-areto handiei buruz, aipatu behar da asimetria handia dagoela oraindik ere diru-sarretan eta enpleguan. Diru-sarreraren bolumen handiena duten aretoek diru-sarreraren guztizkoaren % 84,9 biltzen dute, eta enpleguaren % 69,5.

25. irudia. **Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten erakusketak-aretoen % 20ren erlatiboa. 2019-2021**




Ikus-entzunezkoen sektoreko agenteak

Ikus-entzunezkoen ekoiztetxeen asimetria aztertzeko, EITB kanpoan utzi da; izan ere, haren tamainak eragin handia du datuen gain, eta sektorearen gainerakoaren ezaugarriak zehaztea zailtzen du. EITB alde batera utzita, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20k diru-sarreraren % 76,3 biltzen du. Ekoiztetxe-talde horrek sektoreko langileen % 58,6 biltzen du.

Normala denez, ekoizpenei dagokienez ia-ia ez dago asimetriarik: jardueraren pisua % 21,8 da.


26. irudia. Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten ikus-entzunezkoen ekoiztetxeen % 20ren pisu erlatiboa.⁽¹⁾ 2019-2021



(1) ETB kontuan hartu gabe

Zinema-aretoei dagokienez, asimetriak askoz ere arinagoak dira edizio honetako adierazle guztietan: zinema-aretoen % 20k diru-sarreraren % 63,9 biltzen dute, eta leihatilako diru-sarreraren % 68,9; langileen % 56,9 hartzen dute, eta ikusleen % 66,6 erakartzen dute. Areto guztietako emanaldien % 70,3 programatu dute, nahiz eta areto horietan ikus daitezkeen filmak guztizkoaren % 49,9 diren.

27. irudia. **Sektoreko adierazleetan diru-sarrerak handienak dituzten zinema-aretoen % 20ren pisu erlatiboa.** 2019-2021




2. Zuzeneko kultura vs erreproduzitu daitekeen kultura

Zuzeneko kulturak barnean hartzen du arte eszenikoei, musikari eta ikusizko arteei loturiko zuzeneko adierazpenen multzoa. Bestelakoak dira, ordea, erreproduzitu daitekeen kulturak sortzen dituen produktuak: izan ere, liburuaren, diskoaren edo ikus-entzunezkoen kultura-industria klasikoek ordezkatzan dute azken kultura hori.


Edizio honetan, ehuneko bost jaitsi da zuzeneko arteei eskainitako kultura-sarea, baina, hala ere, nagusi izaten jarraitzen du erreproduzitu daitekeen kultura gisa hartzen diren kultura-industrien aldean. Kontuan izan behar da pandemiaren ondorioz ezarritako murrizketek bete-betean eragin zutela kultura presentzian eta zuzeneko kulturaren.

28. irudia. **Arteen eta kultura-industriren agenteen banaketa zuzeneko kulturaren eta erreproduzitu daitekeen kulturaren arloetan.** 2019-2021




Diru-sarrerei eta enpleguari dagokienez, zuzeneko kultura are maila apalagoetan dago, erreproduzitu daitekeen kultura baino, arrazoi hauengatik: zuzeneko kulturaren agenteen murrizketa, kultura horren negozio-ereduaren ezaugarriak eta, berriz diogu, urte horretan izandako salbuespenezko egoera. Hala, liburuaren, diskoaren eta ikus-entzunezkoen kultura-industriei dagozkie azterlanean aztertutako kultura-sektoreek sortzen dituzten diru-sarreren % 67 eta enpleguaren % 62,8.

29. irudia. **Diru-sarrerak zuzeneko kulturaren eta erreproduzitu daitekeen kulturaren agenteen arabera. 2019-2021**




30. irudia. **Langileak (urteko lanaldi osoko langile baliokideak) zuzeneko kulturaren eta erreproduzi daitekeen kulturaren agenteen arabera. 2019-2021**



Estatistikaren azken edizioan, eta Begiradak izeneko txosten honetan bertan, aurkeztu bezala, euskarazko kulturaren datuak aztertu ahal izateko, kontuan izan behar da zein den EAEko hizkuntzen errealitatea. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak argitara emandako 2021. urteko azken datuek agerian uzten dute 16 urtetik gorako helduen % 36,2 elebiduna dela, % 18,6 elebidun pasiboa eta % 45,3 elebakar erdalduna. Lurraldeen artean alde handiak daude: Gipuzkoako biztanleen erdiak baino gehiago elebidunak dira (% 51,8). Bizkaian, biztanleen herena baino apur bat gehiago dira elebidunak, (% 30,6), eta Araban laurdena (% 22,4).


31. irudia. **EAEko biztanleen banaketa, euskara-ezagutzaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021**



Iturria: EAEko VII. Inkesta Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa.

Adinaren araberako banaketari esker, ikusten dugu zer pisu duten biztanle euskaldunek 35 urtetik beherakoen artean: 16 eta 24 urte bitartekoen % 74,5 euskalduna da, eta halakoak dira 25 eta 34 urte arteko biztanleen erdiak baino gehiago (% 54,4).

32. irudia. **Hiztun euskaldunen banaketa, adinaren arabera.** Ehunekoak. 1991-2021



Iturria: EAEko VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa.


Hizkuntza-errealitate horretan, adinaren eta lurraldearen aldagaiek asko baldintzatzen dute euskarazko kultura-eskaintzaren merkatu potentziala. Izan ere, errealitate horrek eragina dauka sortzen diren ekoizpenen genero eta tipologietan, bai eta lurraldearen arabera programatzen den eskaintzaren ezaugarrietan ere.

Euskara arte eszenikoetan

Ekoizpena aztertuz gero, lehenik eta behin nabarmentzekoa da euskarazko ekoizpenen edo ekoizpen elebidunen kopurua ekoizpen guztien % 65,1 inguru dela. Zenbaki absolutuetan, 75 ekoizpen dira. 75 ekoizpen horietatik, 46 euskara hutsean sortutakoak dira, eta gainerakoak bertsio bikoitze-ko ikuskizunak dira.

Arte eszenikoen ekoizpenean euskarak duen presentziaren bilakaerak aldaketa bat erakusten du lurraldeen arteko banaketan: edizio honetara arte, Gipuzkoa maila altuagoetan egon da gainerako lurraldeak baino; Bizkaiak 2017an hasitako goranzko joera sendotu du. Araban, egoera aldakorragoa da, joera argirik gabea.

33. irudia. **Euskararen presentziaren bilakaera arte eszenikoekoen ekoizpenean.**⁽¹⁾
Ehunekoak. 2009-2021




(1) Euskaraz egindako ekoizpenak eta hala euskarazko nola gaztelaniazko bertsioak dituzten ekoizpenak zenbatu dira.

Euskarazko antzerki-ekoizpena soilik aztertuz gero, ikusten da azken hamarkadaren hasieran bi hizkuntzetan egindako bertsioak zirela nagusi; orain, berriz, euskarazko testua bakarrik duten ekoizpenak dira gehienak (% 61,3 2021 ean).

Generoaren araberako desberdintasunei dagokienez, euskara nagusi da mota guztietako ekoizpenetan: haur-antzerkian gailentzen da (% 87,4), antzerki musikalaren % 79,9 da, eta testu-antzerkiaren % 74. Kaleko antzerkiaren kasuan, maila apalagoetan dago, % 54,6rekin.

34. irudia. Euskarazko antzerki-ekoizpena⁽¹⁾ tipologiaren arabera.

Ehunekoak. 2021




⁽¹⁾ Euskaraz egindako ekoizpenak eta hala euskarazko nola gaztelaniazko bertsoak dituzten ekoizpenak zenbatu dira.

Arte eszenikoen programazioari dagokionez, emanaldien % 41,9 egiten da euskaraz; gainera, nabarmentzekoa da euskarazko emanaldiek areto txikietan duten pisua (programazioaren % 65,7).

Euskarak lurralde bakoitzean duen presentziari erreparatzen badiogu, Gipuzkoa gailentzen da argi eta garbi, edizio honetan programazioaren % 69,8 eskaini baita euskaraz han; Araban eta Bizkaian, ordea, jaitsi egin da euskarazko eskaintza eszenikoa (eskaintza osoaren % 40,3 eta % 35,7 hurrenez hurren).

35. irudia. **Euskararen presentziaren bilakaera arte eszenikoen programazioan, lurralde historikoaren arabera.** Ehunekoak. 2009-2021



Arte eszenikoen aretoen artean, nabarmentzekoa da areto ertainetan eta, bereziki, txikienetan egindako emanaldien pisua. Areto ertainetan, emanaldien erdiak egin dira euskaraz (% 51,8), eta areto txikietan, berriz, 10etik 6 (% 65,7).


Jaialdietan, presentzia txikiagoa izan dute edizio honetan, eta, alde horretatik, aldatu egin da aurreko edizioetako joera: 2019an, 10 emanalditik 4 euskaraz egin ziren; 2021 ean, ordea, emanaldi guztien % 23,2.

36. irudia. **Arte eszenikoen programatzaileek antolatutako euskarazko emanaldiak, tipologiaren arabera. Absolutuak, ehunekoak eta emanaldien batezbestekoa, aretoen arabera. 2021**

Agentearen tipologia	Euskaraz egindako emanaldiak			Emanaldiak guztira
	Maizt.	%	Batezbest.	Maizt.
Areto handiak	75	12,9	18,9	583
Areto ertainak	909	51,8	19,8	1.756
Areto txikiak	518	65,7	11,0	789
Aretoak guztira	1.502	48,0	15,5	3.128
Jaialdiak	238	23,2	6,1	1.024
GUZTIRA	1.740	41,9	12,8	4.151


Ekoizpenetan bezala, antzerki-programazioan ere haurrentzako antzerkia gailentzen zaie gainerakoei (% 73,3), eta ondotik datoz musikalak (% 62), kaleko antzerkia (% 39,8) eta testu-antzerkia (% 39,1). Euskarazko antzerki lirikoaren presentzia % 20,8koa da.

37. irudia. **Euskarazko antzerki-programazioa tipologiaren arabera. Ehunekoak. 2021**



Azkenik, laburpen gisa, lurraldeka aztertu dira arte eszenikoen ekoizpen eta programazioen datuak: ikusten da Araban eta Bizkaian askoz ere presentzia handiagoa duela ekoizpenak eskaintza eszenikoak baino; Gipuzkoan, berriz, alderantziz gertatzen da.

38. irudia. **Euskararen presentzia arte eszenikoen ekoizpenean eta programazioan, lurralde historikoaren arabera.** Ehunekoak. 2021



Euskara ikus-entzunezkoetan


Euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpenari dagokionez, euskaraz egindako ekoizpenei euskarazko zein gaztelaniazko bertsioak dituzten ekoizpenak batu zaizkie. 2021ean, ikus-entzunezko ekoizpenen % 57,3 egin zen euskaraz. EITBren ekoizpenak zenbatu gabe, euskarazko ekoizpenaren ehunekoa % 52,9 da.

Gipuzkoako enpresek euskaraz egin dute ekoizpen gehiena (% 69,4). Horietatik, % 5,9 euskaraz soilik ekoitzi dira, eta % 63,5 euskarazko nahiz gaztelaniazko bertsioa duten ekoizpenak dira. Araban, euskarazko ekoizpenaren datu orokorra % 39,1 da, eta bi hizkuntzetan egin direnak dira nagusi. Bizkaian, EITB sartzeak edo ez sartzeak erabat aldatzen du lurraldearen profila, ez bakarrik euskarak ekoizpenean duen pisuagatik (% 30,1 EITB gabe, eta % 48,5 EITBrekin), baizik eta euskara hutseko ekoizpenean duen eraginagatik ere: EITBren efektua lurralde horretan euskaraz ekoizten den guztiaren % 38,8ra iristen da.

39. irudia. **Euskarazko eta euskara eta gaztelaniazko ikus-entzunezkoen ekoizpena lurralde historikoaren arabera. 2021 (EITB barnean)**

Lurralde historikoa	Euskara	Euskaraz eta gaztelaniaz	Guztira
Araba	% 3,6	% 35,5	% 39,1
Gipuzkoa	% 5,9	% 63,5	% 69,4
Bizkaia	% 38,8	% 9,7	% 48,5
Total	% 22,4	% 34,9	% 57,3

40. irudia. **Euskarak ikus-entzunezkoetan duen pisu erlatiboaren bilakaera,⁽¹⁾ lurralde historikoaren arabera.⁽²⁾ Ehunekoak. 2009-2021**




⁽¹⁾ Euskaraz egindako ekoizpenak eta hala euskarazko nola gaztelaniazko bertsiak dituzten ekoizpenak zenbatu dira.

⁽²⁾ EITBren ekoizpena ez da aintzat hartu.

Euskarazko ekoizpenen tipologiari erreparatuz gero, hauek dira nagusi: zuzeneko emankizunak (% 56,9), bideoklipak (% 58,8) eta bestelako ekoizpenak (% 69,8). Euskarazko zinema-ekoizpenen pisu erlatiboa % 38,8 da.


41. irudia. **Euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpena⁽¹⁾ tipologiaren arabera.**
Ehunekoak. 2021. (EITB kontuan hartuta)



(1) Euskaraz egindako ekoizpenak eta hala euskarazko nola gaztelaniazko bertsiok dituzten ekoizpenak zenbatu dira.

Zinema-aretoetan euskarazko filmak ikusteko aukerari dagokionez, datuek adierazten dute emanaldien % 3,2 euskaraz direla (3.179 emanaldi 2021ean). Emanaldi horien banaketa berdina da Bizkaiko eta Gipuzkoako aretoetan (% 41,8), eta gainerakoak Araban eskaini dira (% 11,3).


42. irudia. **Zinema-aretoetako euskarazko emanaldiak lurralde historikoaren arabera.** Ehunekoak. 2021



Euskara argitaletxeen ekoizpenean


2021 ean, argitaletxeen euskarazko ekoizpenak % 46ko¹ pisua izan du, guztizkoarekin alderatuta. Datuak agenteen diru-sarreraren arabera aztertuz gero, ikus daiteke profil hori argitaletxe ertainetan dela nagusi (% 65,6).

43. irudia. Euskarak argitaletxeen ekoizpenean duen pisu erlatiboa, argitaletxeen profilen arabera. 2021




Obren jatorrizko hizkuntza aztertzeak ikuspegi berri bat ematen du argitalpen-ekoizpenaren ezaugarriei buruz. Hala, 2021 ean nobedade gisa argitaratutako 1.020 tituluetatik, % 23,6 jatorriz euskarazkoak dira, eta % 24,9 euskarara itzulitakoak dira. Argitaletxeen funtsetatik berriz argitara emandako 1.763 tituluetatik, euskarazko jatorrizkoak % 20,5 dira, eta itzulpenak, berriz, % 44,6.

¹ Sektoreko argitaletxe bat kanpoan utzi da: izan ere, muturreko balioak agertzen ditu, eta, horren ondorioz, sektoreko datuak desitxuratzen ditu.




Zehazkiago, datuek aukera ematen dute jakiteko euskarazko ekoizpena zer generotan nagusitzen den eta zer alde dagoen argitalpen berrien eta berrargitalpenen artean. Ildo horretan, hiztegi eta entziklopedia guztiak euskaraz argitaratu dira. Gainerako generoetan, hauek dira euskaraz ale-bolumen handiena dutenak: giza eta gizarte-zientziak, haurrentzako eta gazteentzako literatura, uni-bertsitatekoak ez diren testuliburuak eta literaturako liburuak (% 72,9, % 71,1, % 69 eta % 61,3 hurrenez hurren).

45. irudia. **Argitaletxeen euskarazko ekoizpena generoaren arabera.**
Ehunekoak. 2021



Euskarazko argitalpenetan, desberdintasunak agertzen dira, argitalpenak berriak izan edo argitaletxearen funtsaren berrargitalpenak izan: berrargitaratutakoak nagusi dira (% 68,2), nobedadeen gainetik (% 46).

46. irudia. **Argitaletxeen euskarazko ekoizpena argitalpen motaren (berriak edo funtsekoak) eta aleen tipologiaren arabera.** Ehunekoak. 2021



4. Ekimen publikoarekiko mendekotasuna eta pisua

Enpresek arlo publikoarekiko zer mendekotasun duten kalkulatzeko, begiratu behar da dirulaguntzek zer pisu duten haien diru-sarreretan. Hala, EAEko kultura-enpresek jasotzen dituzten ekarpen publikoen maila baxutzat har daiteke: haien diru-sarreraren % 5,5 besterik ez dator dirulaguntzetatik. Zehaztu behar da edizio honetan ehuneko puntu bat baino gehiago hazi dela pisu hori. Azterketa honetan, agente pribatuek jasotako dirulaguntzak baino ez dira aintzat hartu, eta ez da aztertu zer eragin duen sektore publikoak merkatuan, zuzeneko zerbitzu-hornitzaile gisa edo sektore pribatuaren ekoizpenen eta zerbitzuen kontratatzaile gisa.

Edizio honetan, pandemiaren salbuespenezko inguruabarrak tarteko, hauek dira mendekotasun handiena duten ekoizpen-sektoreak: kontzertu-aretoak (% 24,8), arte eszenikoen konpainiak (% 20,5) eta diskoetxeak (% 11,3). Konpainiek, dirulaguntzak jasotzeaz gain, programatzaile publikoak nagusi diren kontratazio-merkatu baten mende daude. Zuzeneko musikari dagokionez, sustatzaileak kontratazio publikoaren mende daude neurri handi batean, zuzeneko dirulaguntzen mende baino gehiago; dirulaguntza horiek % 8,5ekoak izan dira, ehuneko handiagoa aurreko edizioetan baino.

Saltokiek ia ez dute ekarpen publikorik jasotzen: liburu-dendek diru-sarreraren % 0,5; disko-saltokiek ez dute halakorik jasotzen, eta, arte-galerien kasuan, laguntza publikoak diru-sarreraren % 0,9 baino ez dira.

Azkenik, ikus-entzunezkoen arloan, laguntzak diru-sarreraren bolumen osoaren ehuneko 5 eta 6 artekoak dira: zehazki, % 4,9 ekoiztetxeen kasuan, eta % 6,6 zinema-aretoetan.

47. irudia. **Agente publikoek arlo publikoarekiko duten mendekotasuna, sektorearen eta agente-tipologiaren arabera.**⁽¹⁾
Absolutuak eta ehunekoak. 2017-2021


Sektorea	Agentearen tipologia	2017			2019			2021		
		Agente pribatuak	Diru-sarrerak, guztira	Ekarpen publikoak	Agente pribatuak	Diru-sarrerak, guztira	Ekarpen publikoak	Agente pribatuak	Diru-sarrerak, guztira	Ekarpen publikoak
		Maizt.	Milaka eurotan	%	Maizt.	Milaka eurotan	%	Maizt.	Milaka eurotan	%
Arte eszenikoak	ekoizleak	69	15.989,20	9,7	82	17.438,63	10,3	74	14.000,8	20,5
	Programatzaileak	2	-	-	2	-	-	4	1.652,1	1,3
Liburuak	Argitaletxeak	34	27.234,10	3	34	27.562,76	5,1	35	27.705,1	4,5
	Liburu-dendak	81	31.122,50	0	82	41.465,85	0	88	42.913,3	0,5
Musika	Sustatzaile pribatuak	11	47.079,70	3,5	13	42.250,76	4	14	20.498,3	8,5
	Kontzertu-aretoak	17	3.016,70	3,9	14	4.589,70	6	7	2.070,5	24,8
	Diskoetxeak	6	2.066,10	8,3	5	437,15	5,1	9	2.656,1	11,3
	Disko-saltokiak	17	2.799,00	2,6	10	2.153,52	0	17	1.974,3	0,0
Ikusizko arteak	Arte-galeriak	19	4.738,00	0,8	21	3.454,02	2	14	9.802,5	0,9
Ikus-entzunezkoak	ekoizleak	69	42.727,70	8,2	73	57.143,98	6,6	99	36.831,6	4,9
	Zinema-aretoak	17	18.605,60	0,8	18	24.542,77	0,2	25	13.514,5	6,2
Guztira		342	195.579,30	4,2	354	221.039,14	4,1	386	173.618,5	5,5

⁽¹⁾ Analisisik kanpo utzi dira agente pribaturik ez duten tipologiak edo estatistiken sekretua urra dezaketenak.

Jarduera

Agente publikoek kultura-eskaintzan zer presentzia duten begiratzeak beste ikuspegi bat eman dezake². Antzoki eta jaialdietan dagoen eskaintza eszenikoa publikoa da gehienbat: hamar emalditik zazpi profil horri dagozkio (% 78,5). Ikusizko arteen eremuan, hamar erakusketatik zazpi erakusketa-gune publikoetan egin dira (% 73,6). Zuzeneko musikaren eskaintzan, kontzertuen % 62,4 ekimen publikoak izan dira. Ikus-entzunezkoei dagokienez, aintzat hartu behar da arlo publikoak pisu handia duela jardueran, EITBren presentziaren eta pisuaren ondorioz, txosten honen hainbat ataletan adierazi den bezala.

48. irudia. **Titulartasun publikoko agenteek egindako jardueraren pisu erlatiboa.**
2017-2021



² Análisi honetatik kanpo utzi dira argialetxeak, liburu-dendak, arte-galeriak, disko-saltokiak eta diskoetxeak, horietan ez baitago agente publikorik.

Inportazioa



2019ko kultura-programazioko eta -ekoizpeneko datuek agerian uzten dute EAeko artisten eta sortzaileen nagusitasuna areagotu dela kasu guztietan, eta, hartara, aurreko edizioetako dinamika sendotu da. Edizioz edizio areagotu egiten da bertako sorkuntzaren aldeko apustua, eta are gehiago 2021eko egoera berezian.

Musika-programazioaren datuei erreparatuta, programatutako kontzertuetan, hamar artistatik zazpi euskal jatorrikoak dira. Kanpokoei dagokienez, estatuko gainerako lurraldeetakoak dira nagusi (% 17,4), atzerrikoen aldean (% 4,9), azken horien presentzia nabarmen jaitsi baita. Ekoizpen diskografikoan, EAeko artistak % 82,9 dira, eta atzerrikoak (% 9,9) gehiago dira estatuko gainerakoak baino (% 7,3).

Antzezpen eszenikoen eremuan, atzerriko konpainien kontratazioa % 1,6ra jaitsi da. EAeko konpainien kontratazioak, berriz, gora egin du (% 71,3), eta hala egin du estatuko gainerako erkidegoetakoena ere (% 27,5).

Azkenik, ikusizko arteen sektorean, EAeko artistak nagusi dira (% 77,3), baina ehuneko bost puntu murriztu da aurreko ediziotik.

49. irudia. **Nazioartekotzeak kultura-programazioan eta -ekoizpenean duen pisua.**
2019-2021




Kanpoko merkatuetan presentzia izatea

Edizio honetan, kanpoko merkatuak murriztu egin dira arte eszenikoetarako, espero izatekoa zenez. Euskal konpainiek estatuko gainerako lekuetan egin dituzten emanaldiak guztizkoaren % 21,5 izan dira, eta % 4,9 atzerrian egindakoak.

Nabarmentzekoa da atzerriko merkatuaren pisua handitu dela dantza-konpainientzat (% 18,4).


50. irudia. **Arte eszenikoen ekoizpen-konpainiek egindako emanaldiak, antzezteko tokiaren arabera.** 2019-2021



EAE n dauden argitaletxeentzat, kanpo-merkatuek argitalpen osoaren % 37,1 hartzen dute: % 27,2k estatuaren gainerako erkidegoak ditu jomuga, eta % 9,9k atzerria³.

³ Sektoreko argitaletxeetako bat kanpoan utzi da: izan ere, muturreko balioak agertzen ditu, eta, horren ondorioz, sektoreko datuak desitxuratu ditu.


51. irudia. **Argitaletxeek saldutako liburuak (nobedadeak + funtsa), jomugaren arabera. 2021**



2021ean erabat aldatu zen EAEn kokatutako kontzertu-sustatzaile pribatuen dinamika. 2019an, honela banatu ziren: estatuko gainerako lurraldeetan kontzertuen ia erdiak egin ziren (% 49,7), eta EAeko merkatuan % 42,7. Atzerriko merkatuak, berriz, kontzertuen % 7,7 hartu zuen, 2019an.

2021ean, merkatuaren % 60 EAEn dago, eta gainerako ia guztia estatuko gainerako lekuetako merkatua da (% 39,8); atzerrian programatutako kontzertuak % 0,2 dira.

52. irudia. **Sustatzaile pribatuek programatutako kontzertuak, programazio-tokiaren arabera. 2021**




Berritzea

Berritze-tasatzat hartzen dira ekoizpen berriak guztizkoarekiko. Tasa horrek adierazten du dinamika dibergentea dagoela liburuaren eta diskoaren industrietan. Nolanahi ere, aldakuntzak ez dira nabarmenak: tasak ekoizpen-bolumenaren erdia inguru dira, industria horien bizitasunaren erakusgarri.

Argitaletxeen industriaren berritze-tasa % 51 da. Industria diskografikoak % 49,5eko tasa du. Ekoizpen eszenikoan tasa % 22,4raino jaisten da. Datuek agerian uzten dute aldeak daudela industrien eta arteen negozio-ereduen artean; batez ere, industriek premia dutelako nobedadeak argitaratzeko, eta arte eszenikoetan, berriz, konplexua da ekoizpen berriak eraikitzea, nahiz eta ekoizpen-dinamika altu baten mende egon.

53. irudia. **Berritze-tasa.** 2019-2021




Emakumeen presentzia

2021 ean, emakumeek arteen eta kultura-industrien enpleguetan duten pisua % 46,4koa da. Liburuek eta ikusizko arteek biltzen dute oraindik ere emakumeen presentzia handiena. Liburuetan eta ikusizko arteetan, hamar langiletik sei emakumeak dira, eta, gainera, goranzko joera dute.


Musikaren sektorean, 2019arekin alderatuta, beste 8 puntu jaitsi da emakumeen ehunekoa (% 52,2 2017an; % 44,4 2019an; % 36,5 2021 ean). Ikus-entzunezkoen sektorean, zertxobait gora egin du (2019an % 43,2 izatetik 2021 ean % 44 izatera). Sektore orekatu eta egonkorrena arte eszenikoak dira: emakumeen ehunekoa % 49,5 da hor.

54. irudia. **Langileak (urteko lanaldi osoko langile baliokideak), sexuaren eta sektoreen arabera. Emakumeen ehunekoak. 2019-2021**



Titulartasunaren arabera, emakumeak dira nagusi, oraindik ere, elkarteetan eta fundazioetan (% 49).

55. irudia. **Langileak (urteko lanaldi osoko langile baliokideak), sexuaren eta agenteen titulartasunaren arabera. Emakumeen ehunekoak. 2019-2021**



Emakumeen enplegua xeheki aztertzen bada lanbidearen eginkizunaren arabera, ikusten da kudeaketaz eta administrazioaz deketaz eta administrazioaz arduratzen diren lanpostuetan direla nagusi, ia-ia sektore guztietan; profil profesional horretan, hamar lanpostutik sei betetzen dituzte emakumeek.


Aurreko edizioan ikusten zenez, teknikari- eta zuzendari-postuetan dago emakumeen proportzio txikiena: % 44,8 eta % 37,4 hurrenez hurren. Ikusizko arteen sektorea nabarmendu behar da: erakusketa-guneetan, zuzendaritza-postuen % 67,5 emakumeek betetzen dituzte; liburu-dendetan, % 55,4; eta gainerako sektoreetan, emakumeen ordezkartza ez da % 50,0 baino handiagoa. Teknikarien kasuan, bi sektoretan, emakumeen presentzia % 70etik gorakoa da: liburu-dendetan (% 77,2) eta ikusizko arteen erakusketa-guneetan (% 70,1). Nagusi dira, halaber, argialetxeetan (% 60,0), diskoetxeetan (% 59,2), musika-programatzaile publikoetan (% 58,2) eta sustatzaile pribatuetan (% 55,0).

56. irudia. **Langileak (urteko lanaldi osoko langile baliokideak), lanbide-kategoriaren eta agente-tipologiaren arabera.** Emakumeen ehunekoak. 2021

Sektorea	Agentearen tipologia	Zuzendariak	Teknikariak	Kudeaketa / administrazioa	Beste batzuk
Arte eszenikoak	ekoizleak	44,6	39,3	64,4	48,7
	Programatzaileak eta jaialdiak	38,4	42,5	72,4	45,3
Liburuak	Argitaletxeak	38,8	60,0	48,4	56,1
	Liburu-dendak	55,4	77,2	75,0	70,2
Musika	Programatzaile publikoak	30,7	58,2	75,4	35,5
	Sustatzaile pribatuak	15,9	55,0	54,7	40,3
	Kontzertu-aretoak	23,3	5,9	42,5	44,4
	Bandak	12,9	20,0	100,0	0,0
	Diskoetxeak	24,6	59,2	12,6	0,0
	Disko-saltokiak	21,1	36,4	36,3	12,3
Ikusizko arteak	Erakusketa-guneak	67,5	70,1	92,5	47,0
	Arte-galeriak	46,9	0,0	45,2	74,6
Ikus-entzunezkoak	ekoizleak	31,8	44,1	57,2	43,9
	Zinema-aretoak	23,6	36,7	63,1	54,5
Guztira		37,4	44,8	64,6	45,4

Termino absolutuetan, profil teknikoek biltzen dute enplegu kopuru handiena emakumeentzat: 943 langile, 2021 ean. Nabarmentzekoak dira ikus-entzunezkoak (618 emakume daude lanpostu teknikoetan) eta liburuak (127 lanpostu).

57. irudia. **Emakumezko langileen guztizkoaren banaketa (urteko lanaldi osoko langile baliokideak), sektorearen eta lanbide-kategoriaren arabera.**
Absolutuak eta ehunekoak. 2021




Berdintasun-politikak

Atal honetan, berdintasuna sustatzeko hartzen diren neurriak aztertzen dira, zehazki arteen eta kultura-industrien agenteek enplegu-politiketan hartzen dituztenak.


Lehenik, ikus daiteke gehien hartzen den neurria ordutegia malgutzea dela (% 63,8). Bigarrenik, berdintasun-planak eta senideak zaintzeko baimenak izateko aukera daude. Jazarpenaren edo genero-indarkeriaren aurkako planak ia kasuen erdietan ezarrita daude. Teelana da ezarpen-maila txikiena duen neurria: hamarretik lauk baino ez dute. Alde horretatik, nabarmentzekoa da hamar agentetik hiruk adierazi dutela ez dela aplikagarria beren egoeran.

58. irudia. **Berdintasuna sustatzeko neurrien ezarpen-maila. 2021**




Agente publikoen erantzunak soilik aztertuz gero, ikusiko dugu neurri guztien ezarpen-maila zabala dela, teelanarena izan ezik, horren aplikazioa are mugatuagoa baita.

59. irudia. **Agente publikoetan berdintasuna sustatzeko neurrien ezarpen-maila.**
2021



Sektoreen araberako begiradak nabarmentzen du arte eszenikoak gailentzen direla neurriak ezarzteko orduan, eta, ondoren, musika eta ikus-entzunezkoak datoz. Ezarpen-maila apalagoetan daude liburuaren sektorea eta ikusizko arteak.


60. irudia. **Ezarritako neurriak, sektorearen arabera. 2021**




Azkenik, ekintza espezifikoak aplikatzen ote diren aztertuta, ikusten da datuen jarraipen espezifiko bat egiten dela soldadari, orduerik eta abarri buruz; jarraipen hori kasuen % 20 ingurukoa da sektore guztietan. Aipatu behar da liburuaren sektoreak eta ikusizko arteek –bi sektore feminizatuenek– halako ekintzarik planteatzen ez dutela adierazten duen erantzun-ehuneko handiena dutela.

Amaitzeko, genero-ikuspegiaren aplikazio orokorrari dagokionez, sektore bakoitzean % 10-20k adierazi du badituela ezarriak irizpide eta helburuak eremu horretan. Kasu gehienetan, adierazi dute ikuspegi hori aplikatzen dutela, baina ez modu sistematizatuan (% 50 eta % 60 artean). Salbuespena liburuaren sektorea da, non ez den planteatzen hamar kasutik seitan.

61. irudia. **Soldatak, orduak eta abar generoaren arabera xehatu eta aztertzeako tresnak, sektoreka.** 2021



62. irudia. **Genero-ikuspegia aplikatzea enpresaren jardueran, barne-alderdietatik harago, sektorearen arabera.** 2021





**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura